



# **2013ko DIAGNOSTIKO- EBALUAZIOA**

**HOBKUNTZAN ESKU HARTZEKO AGIRIAK,  
EAEko IKASTETXEEN DIAGNOSTIKO-  
EBALUAZIOAREN EMAITZETATIK ABIATUZ.**

**IKASTETXEKO TXOSTENA  
HOBKUNTZARAKO ESKU HARTZE PLANA**

**IKASTETXEA: MUNGIA BHI  
HERRIA:Mungia**

**KODEA:015108**

**IKASTURTEA:2013-2014**

# IKASTETXEKO TXOSTENA

IKASTETXEA: MUNGIA BHI  
HERRIA:Mungia  
IKASTURTEA: 2013-2014

KODEA:015108

## 0.-SARRERA

Analisi honetan, ebaluazio diagnostikoaren emaitzez gain, **iazko eskola emaitzen ikerketa ere kontuan hartu** dugu. Emaitza hauek **mintegietan** aztertzeo aukera eduki dute, eta **mintegi-buruen koordinazio pedagogikorako bileran** eztabaidatu dugu. Gainera, **ebaluazio diagnostikoaren komisia** osatu dugu, **ikuskaria, berritzeguneko aholkularia, 2 tutore, DBHko ikasketaburua eta zuzendariarekin**, eta azkenik, gure ustez **hobekuntza planean inplikazio gehien eduki behar zuten mintegiekin** bildu gara, **Lengua Castellana, Euskara eta matematikarekin**.

Guzti horren emaitza da aurrean daukagun emaitzen analisia.

## 1º.- EMAITZEN ANALISIA

Ebaluatutako gaitasun desberdinetan arrazoitutako emaitzen balorazioa egingo da, besteak beste, ondoko irizpideetan oinarriturik:

- Ikastetxeko ISEC
- Ebaluatutako gaitasunen eta euren dimentsioen arteko ezberdintasunak
- Ikastaldearen arteko ezberdintasunak
- ISEC berdineko ikastetxeekiko ezberdintasunak
- Geruza berdinean dauden ikastetxeekiko ezberdintasunak
- Espero ziren emaitzekiko ezberdintasunak

Gure emaitzen eboluzioa aztertu dugu eta **hobetu egin** gara, **Lengua Castellanan ezik**. Hala ere, **ISEK bereko ikastetxeekin alderatzen bagara, matematiketan ere gugandik espero denaren atzetik gaude**.

**Euskararen B ereduak jarraitzen du zeharo atzean**, eta ez dugu inolako hobekuntzarik lortu. **Herritartasunean, ordea, oso emaitza onak** lortu dituzte, batzuetan D eredukoak baino hobeak. Hala ere, **oso talde txikia** da, 9 ikasle baino ez, estatistikak ez dira hain esanguratsuak.

**D ereduan, ordea, euskararen emaitzak nabarmenki hobetu** dira, eta horrekin lotuta, uste dugu, **natur zientzietakoak**.

**Taldeka, matematiketan 2D hobia** den bitartean, **beste gaitasunetan 2E nabarmentzen** da. Hala ere, **D ereduan taldeen arteko parekotasuna azpimarratzekoa** da. Beraz, **taldeen aniztasuna taldeetan orekaz banatuta** daukagu.

Azkenik, **gaitasun guztietan, oraindik ere maila aurreratu gutxi** daukagu.

Ebaluatutako oinarritzko gaitasun bakoitzean lortutako emaitzen balorazio espezifikoa.

*ISEI-IVEIk emandako txostenean zehazten diren gaitasun bakoitzerako hiru mailak eta hauen dimentsioei buruzko ikastetxearen hausnarketa, oso lagungarriak izan daiteke balorazio hau egiteko.*

**a) Euskarazko hizkuntza- komunikaziorako gaitasuna:**

-B ereduko emaitzak oso baxuak dira (oinarrizko mailan gelditzen dira), B ereduko beste ikastetxeekin alderatzen bazaigu.

**OHARRA:** Froga hau hasi zenetik, **esan dugu gure B ereduko ikasleen profilagatik, A ereduarekin konparatu behar gaituztela.**

-D ereduan emaitzak oso **homogeneoak** dira; ez dago taldeen artean alde handirik.

-**Idatzizko ulermena ahozko ulermenaren atzetik** dago talde guztietan.

**b) Gaztelaniazko hizkuntza- komunikaziorako gaitasuna:**

-**Emaitza oso arruntak** eta 2010etik aurrera **ez da aldaketarik egon.**

-Gaitasun honetan **ereduka ez dago alde handirik.**

-**Idatzizko ulermenak eta ahozkoak oso antzeko emaitzak** dituzte.

-**Talde onena 2E** da. Gero 2A (B eredua) eta 2B. Emaitza txarrenak, oso antzekoak, 2C-k eta 2 D-k daukate.

**c) Matematikarako gaitasuna:**

-Euskadiren batz-besteakoaren azpitik dimentsio guztietan batean (**Aldaketak-Erlazioak**) ezik.

-**Talde onena 2D** da (azpimarratzea hizkuntzetan txarrenetarikoa dela). Gero 2C, 2B, 2E ETA 2A (B eredua).

**2B ere nabarmentzen da, ez dagoelako hasierako mailan dagoen ikaslerik, eta positibotzat jotzen da behar bada, 2 urte jarraian irakasle bera mantentzea.**

**d) Zientzia-,teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna:**

-Euskadiren batzbestekoaren gainetik gaude, aztertutako dimentsio guztietan.

-D ereduan emaitza onenak ematen dira euskaran ere emaitzak altuagoak direnean.

-B eredia eta D ereduaren artean ez dago alde handirik. Talde onenak 2E eta 2A dira, baina B ereduko talde honetan, **2. An dispertsioa oso handia da.** Gero, atzetik 2C, 2D ETA 2B doaz.

**e) Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna:**

-Emaitzak Euskadiren batzbestekoaren gainetik gaude, aztertutako dimentsio guztietan.

-B eredia eta D ereduaren artean ez dago alde handirik.

-Taldez talde emaitza **onenak 2E-k eta 2A-k** daukate; ostean 2D-k, 2B-k eta 2C-k.

-Aipatzen da gaitasun honetan **heldutasuna lagungarria** izan daitekeela, eta 2An (B eredia) "zaharragoak" (errepikatzaileak) diren ikasleen portzentaje altuagoa da. Gainera, etorkinen kasuan "eskarmentu gehiago" edukitzea ere lagungarria izan daiteke gaitasun honetan. Dena dela, hipotesi bat da.

**Aurreko ikasturteetako eta ikasturte honetako diagnostiko-ebaluazioen emaitzak konparatuz gero, zein ondorio atera daiteke?**

-B ereduan euskaran ez dugu inolako **aldaketarik** lortu.

D ereduan, ordea, **hobekuntza** lortu dugu, baina oraindik gure emaitzak espero denaren atzetik daude, batez ere kontuan hartzen badugu, **familia euskaldunen gure kopurua Euskadiko batzbestekoaren gainetik** dagoela.

- **Lengua Castellanan eta Matematiketan** oraindik gure **ISEK berekoekin** alderatuta espero denaren atzetik gaude. Hala ere, **matematiketan 2009tik** iazko **kurtsorarte zerbait hobetu** badugun bitartean, **lengua castellan ez dugu** gauza bera lortu.

-Hala ere, **Herritartasunean eta kultura zientifikoan**, aldiz, **hobeto** gaude.

## 2º.- EGOERAREN DIAGNOSTIKOA: INDARGUNEAK ETA AHULEZIAK.

Ebaluatutako gaitasun desberdinen emaitza globalen analisitik eta joan den ikasturteko emaitzekin egindako konparaziotik abiatuz,

*Zein indargune identifikatuko zenituzke mantentzeko?*

- D ereduan aniztasuna orekaz banatuta daukagu (Talde heterogeneoak sortzen ditugu) eta ikasle asko minimoetara heltzea lortzen dugu.
- B ereduan talde bakarra denez, ezin izan dugu aniztasuna banatu eta zeharo heterogeneoak dira.
- B ereduan ikasleen profilagatik (etorkinak, ibilbide eskolar eskas-eskasa) ezinezkoa izan zaigu euskara txertatzea eta A eredu bilakatu da.
- Berrikuntza-proiektu askotan parte hartzen dugu.
- Ingelesa edukien bitartez DBHn txertatzea konpetitiboago bilakatzen gaitu sare kontzertatuetako ikastetxeekin.
- Konpetentzia zientifiko eta sozio-herritarra talde guztietan emaitza positiboak.
- Talde interaktibo edo bi irakasle gelan erabileraren eraginkortasuna konpetentzia zientifikoaren emaitzetan.
- Euskaran, gure hizkuntza instrumentalean, genituen emaitza txarrak nabarmenki hobetu egin ditugu 2010etik aurrera.
- Familia euskaldunen kopuru altua daukagu, batazbestekoaren gainetik. Euskadin 19'1 eta gure ikastetxean 25'26.
- Europear proiektuetan parte hartzen dugu.
- Mungialdeko gizarte-zerbitzuen hurbiltasuna ikastetxeekiko, eta garatzen dituzten programak.
- Zentroaren aberastasun eta potentziala, Lanbide Heziketa eta BATX-DBHkoa izateagatik.

### *Zein ahulezi identifikatuko zenituzke hobetzeko?*

-Mungialdean zailtasunak dituzten ikasleak ez daude era orekatuan banatuta publiko eta kontzertatuen artean.

-Mungialdean ia euskara jakin gabe eta berandu gure sisteman eskolarizatu diren umeak Bigarren Hezkuntzan sare publikoan kontzentratzen dira.

-Gaztelera ere menperatzen ez duten ikasleen portzentajea oso altua daukagu, Euskadiren gainetik. Euskadin "beste egoerak" 4'2 diren bitartean, gure ikastetxean 23'16.

Gainera, 2010etik ikasle hauen portzentajea igo egin da 6'7tik 23'16ra. Uste dugu brasildarren presentzia handiagatik eta hispanoak izanik gaztelera ez den beste hizkuntza bat etxean egiten dutenak.

-Hezkuntza Departamentua B eredia kentzen ari da, baina euskara jakin gabe Bigarren Hezkuntzan ikasle etorkinak sartzen ari da, sare publikoan. Ikasle mota hau zentro publiko batzuetan kontzentratzen uzten badiete, D ereduaren kalitatea kolokan jarri daiteke.

-Hainbeste "aniztasuna" kontzentratzeak espektatiba akademiko altuak dituzten ikasleak galtzeko arriskua ekar dezake.

-Zentroaren egitura eta tamaina: 3 eraikuntzetan. Klaseetarako denbora galtzen da eta langileen estres-maila igotzen da.

-Zentroaren "bicefalia": Lanbide Heziketako sailburuordetzaren eta Ikastetxeen artean gauden zentroa izatea, eta ez dute era koordinatuan lan egiten.

### **3º. HOBKUNTZARAKO ESKU HARTZEKO PLANEKO JARDUEREN JARRAIPENA 2011-12ko ETA 2012-13ko IKASTURTEETAN.**

Hobekuntzarako Esku Hartzeko datorren planaren jarduerak konkretatu ahal izateko, lehenago planifikatutako hobekuntza-jarduerak ikastetxean izan duten eragina ezagutu behar da. Horretarako, aurreko plana/planak martxan jarri izanaren ondorioz antzemandako hobekuntzak deskribatu ahal izatea beharrezkoa litzateke eta, kontrakoan, jarduera desberdinak gauzatzeko orduan ikusitako zailtasunak adieraztea, zailtasun horiek gerta zitekeen hobekuntza bat eragotzi dutela interpretatzen bada.

Agian aurreko urteetan ez dira hobekuntza-jarduerak ondoren adierazten diren eremu guztietan programatu eta, horregatik, planifikatu ziren hobekuntzei lotutakoei buruzkoa izan beharko da hausnarketa.

*Baieztapen horietako zeinek/zeintzuek deskribatzen du/dute ikastetxean aurrera eramandako hobekuntza-jardueren eragina? (behar den laukia markatu).*

<i>Planifikatutako jarduerak izan dira ikasleen eskola-emaizak hobetzeko lagungarri.</i>	<i>BAI</i>	<i>EZ</i>
	X	

*Baiezkoan, lorpenaren begi-bistako zantzuak adierazi:*

**D ereduan euskararen emaitzen hobekuntza**, eta era berean, **sozio-herritarrean eta zientifikoan**, non ulermenerako hizkuntza oso garrantzitsua da.

*Ezezkoan, aurkitutako zailtasunak adierazi:*

<i>Planifikatutako jarduerak izan dira alderdi metodologikoak hobetzeko, gelan ebaluazioa egiteko edo beste baliabide/material batzuk sartzeko lagungarri.</i>	<i>BAI</i>	<i>EZ</i>
	X	

*Baiezkoan, lorpenaren begi-bistako zantzuak adierazi:*

**Item liberatuak** erabili dira, eta gero eta ikasgai gehiagotan, "tradizionala" baztertu gabe, **proiektuka lan egiten** dute.

*Ezezkoan, aurkitutako zailtasunak adierazi:*

<i>Planifikatutako jarduerak izan dira banakako arreta, tutoretza eta ikasleen jarraipena hobetzeko lagungarri.</i>	<i>BAI</i>	<i>EZ</i>
		X

*Baiezkoan, lorpenaren begi-bistako zantzuak adierazi:*

*Ezezkoan, aurkitutako zailtasunak adierazi:*

**Ez** genuen **hobekuntza-planean** sartu. Hala ere, **errefortzua dagokien ikasleen arreta lantzen** dugu.

<i>Planifikatutako jarduerak izan dira irakatsi eta ikasteko prozesuen programazioa eta planifikazioa hobetzeko lagungarri.</i>	<i>BAI</i>	<i>EZ</i>
	X	

*Baiezkoan, lorpenaren begi-bistako zantzuak adierazi:*

Ahazkotasuna gehiago lantzen da, eta horrela programazioetan islatzeko eskatu da.

**Kompetentzia sozio-herritarra-** hala nola sostengarritasuna, hezkidetzaprogramazioetan ere islatzeko eskatu da.

*Ezezkoan, aurkitutako zailtasunak adierazi:*

Planifikatutako jarduerak izan dira ikastetxearen antolaketa- eta koordinazio-alderdiak hobetzeko lagungarri.	BAI	EZ X
---	-----	---------

*Baiezkoan, lorpenaren begi-bistako zantzuak adierazi:*

*Ezezkoan, aurkitutako zailtasunak adierazi:*

**Bigarren Hezkuntzako egiturak ez du laguntzen koordinazio bertikalak egiteko. Mintegien bilerak eta tutoreenak oso garrantzitsuak izaten jarraitzen dute, baina ez dira nahikoa gaur egunean.**

**Ordutegiak egiterakoan, ordea, irakasleek eskema zahar horiek (17-18 ordu lektibo/ 2 edo 3 zaintza/ Mintegi-bilera/ Tutoreen koordinazioa/ Formazio ordua) mantentzen dituzte batzuetan.**

Planifikatutako jarduerak izan dira irakasleen prestakuntza-jarduerak ikastetxearen premietara egokitzeko lagungarri.	BAI X	EZ
---	----------	----

*Baiezkoan, lorpenaren begi-bistako zantzuak adierazi:*

Formazio planean **IKT-protagonismoa, gelako dinamikei begira.**

**Ingeles formazioaren arrakasta.**

**Aniztasunaren trataera eta Bizikidetzaren ere formazio-planean.**

*Ezezkoan, aurkitutako zailtasunak adierazi:*

Planifikatutako jarduerak izan dira elkarbizitza eta eskola-giroa hobetzeko lagungarri.	BAI	EZ X
---	-----	---------

*Baiezkoan, lorpenaren begi-bistako zantzuak adierazi:*

*Ezezkoan, aurkitutako zailtasunak adierazi:*

**Ez daukagu txertatuta hobekuntza-planean baina bai urteko planean eta gure Plan Estrategikoan: pertenezia-sentimendua, partaidetza, azken finean, bizikidetzaren positiboa sustatzea.**



<i>Planifikatutako jarduerak izan dira barne eta kanpo eragile desberdinek ikastetxean hobeto esku hartzeko lagungarri.</i>	BAI	EZ
	X	

*Baiezkoan, lorpenaren begi-bistako zantzuak adierazi:*

**Berritzeguneak eta Ikuskaritzak ikastetxe bakoitza hobeto ezagutzeko balio izan du.**

*Ezezkoan, aurkitutako zailtasunak adierazi:*

<i>Beste batzuk (adierazi):</i>	BAI	EZ
<b>Autoebaluazioaren kultura sustatzen da.</b>	X	

*Baiezkoan, lorpenaren begi-bistako zantzuak adierazi:*

**Mintegien partaidetza jasotzen ditugun emaitza guztien analisisan gero eta handiagoa da.**

*Ezezkoan, aurkitutako zailtasunak adierazi:*

<i>Beste batzuk (adierazi):</i>	BAI	EZ
<b>Mintegiak eta zuzendaritzaren arteko elkarriketa pedagogikoa sustatzen da.</b>	X	

*Baiezkoan, lorpenaren begi-bistako zantzuak adierazi:*

**Burokrazia asko dago batzuetan eta denbora gutxi irakaskuntzaz hitz egiteko. Honelako txostenek pedagogiaz hitz egiteko aukera ematen digute, egiten dugun lana lankideekin konpartitzeko.**

*Ezezkoan, aurkitutako zailtasunak adierazi:*

<i>Beste batzuk (adierazi):</i>	BAI	EZ
<b>Zuzendaritzaren lana pedagogikora zuzenduta bideratzen da, eta ez burokraziara.</b>	X	

*Baiezkoan, lorpenaren begi-bistako zantzuak adierazi:*

**Emaitzen analisia, eskola emaitzak, selektibitatea, zikloak eta lana, baita orain hizpide daukagun ebaluazio diagnostikoa, zuzendaritzaren lanari zentzu**

**pedagogikoa ematen dio**, egunero bete beharreko hainbeste burokraziaren gaineretik. **Lidergo pedagogikoko zuzendaritzako ereduak** sustatzen dira honelako kanpoko ebaluazioei esker.

*Ezezkoan, aurkitutako zailtasunak adierazi:*

*2012/13 ikasturteko hobekuntzarako esku-hartze planetik, zein ekintzak mantenduko dira? Zeintzuk galtzen dute balioa? Zergatik? Ikastetxeak esku hartzeko ahalmena duen arlo edo alderdiak azpimarratu.*

**B eredu**a hezkuntza Departamentuak erabaki du kentzea, beraz esku-hartzeak ez du merezi. Hala ere, **euskara maila eskaseko ikasleak D eredura** heltzen ari dira eta horientzat bai **zerbait pentsatu** beharko dela.

#### **4º. HOBEKUNTZA-JARDUERA BERRIEN ETA PROPOSAMENEN HASIERAKO AURREIKUSPENA.**

Zeintzuk dira gehitzen diren hobekuntza-ekintza berriak ikasturte honetarako?

Ondorengo taulan lehentasuna eman:

1. hobekuntza-ekintza: **Euskaran idatzizko ulermena** lantzea
2. hobekuntza ekintza: **Problemen ebazpena matematiketan** lantzea
3. hobekuntza-ekintza: **Gaztelera konpetentzia linguistikoa** lantzea
4. hobekuntza ekintza: **Ikasle gehiago maila aurreratuan** egoten saiatzea
5. hobekuntza ekintza: **Konpetentzia sozio-herritarra** lantzen jarraitzea
6. hobekuntza ekintza: **Antolakuntza, klase-denbora gehiago** aprobetxatzeko
7. hobekuntza ekintza: **Konpetentzia zientifikoa** lantzen jarraitzea
8. hobekuntza-ekintza: **Ikastetxeak igurikapen akademiko altuko ikasleak erakartzeko estrategiak** lantzea

**Apirilaren 8an aurkeztu/aurkeztuko** zaio Ikastetxeko txostena Klaustroari eta 9an OOGri/Eskola Kontseiluari.

Zuzendariaren zigilua eta sinadura:

Marina Maroto Martínez

**Data:2014-04-09**

## F.- HOBEKUNTZARAKO ESKU HARTZE PLANAREN EDUKIA ETA EGITURA.

Esku hartzeko eta hobekuntzarako proposamenak selekzionatzea eta lehentasuna ematearen atalean, ikasleek lortutako emaitzak hobetzeko eragin handiena izan dezaketen hobekuntza-ekintza horiek aukeratzea gomendatzen da.

Lan hau egiteko irizpide orokor gisa, ondorengoak hartu beharko lirateke kontuan:

- Funtsezkoa denari, eta ez bigarren mailakoari, lehentasuna ematea.
- Eragin handiagoa eta neurtuak eta ebaluatuak izateko aukera gehiago dituzten ekintzak aukeratzea.
- Irakasle kopuru handi bat hartzen duten eta beraiei eragiten dieten lan-proposamenak selekzionatzea.
- Hezkuntza-komunitatearen adostasun zabala duten jardueren lehentasuna ematea.
- Hobekuntzen egonkortasuna bermatzea.

Ekintza edo hobekuntzarako esku hartze-proposamen horiek ikastetxearen bizitzaren esparru desberdinei eragingo diete:

- **Curriculum-garapenaren eta garapen metodologikoaren esparrua;** hots, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari, gelako irakaskuntza-praktikari, baliabide eta material didaktiko eta teknikoei eta ebaluatzeko irizpide eta tresnei eragiten diena.
- **Antolaketa eta funtzionamendu-esparrua,** irakasle-taldeko koordinazioari, taldekatzei, orduen antolaketari edo funtzionamendu-arauei lotua.
- **Komunitate-esparrua,** ikastetxean dauden harremanekin eta elkarbizitzarekin eta ingurunearekiko eta familiekiko harremanekin zerikusia duena.
- **Garapen profesionalaren edo prestakuntzaren esparrua,** irakasle-taldeko prestakuntza-premiei eta premia profesionalen lotuak.
- Euskal Herriko Unibertsitateak "Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta praktika onak" buruz egin duen ikerketan antzemandako **praktika onak.**
- 

## G.- PLANARI BURUZKO BERRITZEGUNEKO AHOIKULARITZAREN BALORAZIOA.

Hobekuntzarako esku hartzeko planari buruz ikastetxeari eman beharreko aholkularitzan parte hartu duen berritzeguneko aholkulariak plan horren balorazioa egin ahal izango du atal honetan.



# HOBEKUNTZARAKO ESKU HARTZE PLANA

IKASTETXEA: MUNGIA BHI  
HERRIA:MUNGIA  
IKASTURTEA: 2013-2014

KODEA:015108

## 1. HOBEKUNTZA-EKINTZAK SELEKZIONATZEA ETA LEHENTASUNA EMATEA

HOBEKUNTZA-EKINTZA (1)(*)	Lotura duen OINARRIZKO GAITASUNA (2)	ESPARRUA (3)	LEHENTASUNA (4)
Euskararen idatzizko ulermena	Hizkuntza konpetentzia	<i>Curriculum-garapenaren eta garapen metodologikoaren esparrua</i>	Ertaineko epean
Problemen ebazpena matematiketan	Konpetentzia matematikoa	<i>Curriculum-garapenaren eta garapen metodologikoaren esparrua</i>	Epe laburrean
Gazteleran Konpetentzia linguistikoa	Hizkuntza konpetentzia	<i>Curriculum-garapenaren eta garapen metodologikoaren esparrua</i>	Epe laburrean
Ikasle gehiago maila aurreratuan egoten saiatzea	Konpetentzia guztiak	<i>Curriculum-garapenaren eta garapen metodologikoaren esparrua</i>	Epe luzean
Lan-ohiturak eta gizarte trebetasunak lantzea	Konpetentzia sozio-herritarra eta ikasten ikasteko gaitasuna	<i>Curriculum-garapenaren eta garapen metodologikoaren esparrua</i>	Epe laburrean

Denboraren antolaketa-errendimendua	Konpetentzia guztiak	<i>Antolaketa eta funtzionamendu-esparrua</i>	Ertaineko epean
-------------------------------------	----------------------	---	-----------------

- **Curriculum-garapenaren eta garapen metodologikoaren esparrua;** hots, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari, gelako irakaskuntza-praktikari, baliabide eta material didaktiko eta teknikoei eta ebaluatzeko irizpide eta tresnei eragiten diena.
- **Antolaketa eta funtzionamendu-esparrua,** irakasle-taldeen koordinazioari, taldekatzeei, orduen antolaketari edo funtzionamendu-arauei lotua.
- **Komunitate-esparrua,** ikastetxean dauden harremanekin eta elkarbizitzarekin eta ingurunearekiko eta familiekiko harremanekin zerikusia duena.
- **Garapen profesionalaren edo prestakuntzaren esparrua,** irakasle-taldeen prestakuntza-premiei eta premia profesionaleri lotuak.
- Euskal Herriko Unibertsitateak “Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriei eta praktika onei “ buruz egin duen ikerketan antzemandako **praktika onak.**
-

## HOBEKUNTZA-JARDUEREN PLANIFIKAZIOA

1-

EKINTZA	Jarduera/k edo ataza/k (5)	Lortu beharreko helburua (6)	Jardueraren arduraduna/k (7)	Denborak (8)	Baliabideak (9)	Ebaluazioa (10)	
						Jarraipenaren adierazleak	Lorpenaren adierazleak
<b>1.</b> <b>Euskararen idatzizko ulermena lantzea</b>	Irakasleok eta irakaslearen artean euskararen erabilera arrunta egongo da.	Ikasleen ahozko erabilera indartzea arlo formaletan	Normalkuntza batzordea	Ikasturtero	Hizkuntza-normalkuntza Udaleko inkesta	Inkesta urtero errepikatuko da	%10 urte bakoitzean igotzea
	5 ikasgaitan, urtean zehar, ahozko azalpen prestatu bat edo bi egingo du ikasleak, koherentziaz, kohesioz, gutxieneko jarioaz eta zuzentasunez.	Ikasleen ahozko erabileraren zuzentasuna eta jariootasuna lortzea	Ikasgaietako irakasleak	Ikasturtero	Mintegi bakoizteko materialak	Programazioak	%75 programazioetan ahozkotasuna agertzea
	Liburutegiaren erabilera sustatuko da.	Euskarazko idatzizko testuen ulermena hobetzea	Hizkuntzeta ko irakasleak	Hiruhilabetero	ABIES programa eta liburutegiaren arduraduna egotea	Mailegu-fitxeroa	Urte bakoitzean %10 igotzea maileguaren ikasle erabiltzaileak

	2 hurrengo ikasturteetan DBH 1eko ikasle guztiei, edo batzuei (muestreoa) froga bat egingo diegu.	Euskarazko idazkera hobetzea	Arloetako irakasleak	Ikasturtero	Ebaluazio diagnostikoaren idatzizko froga	Froga hau urtero egingo da, ikasle guztiei edo "muestreo"-ikasle batzuei (Baliabideen arabera)	-Barneko froga honetan, urte bakoitzean %10 ikasleen emaitza orokorrak igotzea  -Ebaluazio diagnostikoaren emaitzen hobekuntza %10ean
	Tutoretzetarako eta orientaziorako erabiltzen diren material eta jardun guztiak euskaraz izatea	Ikasleen ahozko erabileraren zuzentasuna eta jariootasuna lortzea	Orientatzaile eta mintegiburuak Berritzegunea	Hiruhilabetero	Orientazio sailetik eta mintegietatik material bilduma euskaraz prestatuko dute.	Euskarazko ikus-entzunezkoaren bilduma.	Euskarazko ikus-entzunezko baliabideen kopurua urte bakoitzean %10 igotzea
<b>2. Problemen ebazpena matematiketan lantzea</b>	Errealitatearekin lotutako ariketak ebatziko dira. Ariketak era guztietakoak izango dira, aurreko ikasturteko mailakoak.	Matematika eta errealitatearen arteko erlazioa bultzatzea.	Matematika, tekno eta natur zientziak irakasleak	Ebaluaketero	Ikaslearen liburua eta irakasleak proposatutakoak	-Mintegi bileraren aktan islatuko da non geratzen den gordeta bilduma.  -Programazioa	Ebaluazio diagnostikoaren emaitzen hobekuntza %10ean

	Errealitatearekin lotutako ariketen bilduma osatzea ( mailaka).	Mintegiaren materiala osatzea	Matematika, tekno eta natur zientziak irakasleak	Mintegi bileran, hilero	Adizkari, web orri eta matematika liburuak	Irakasle koadernoak eta ikaslearen koadernoak -Programazioa	Ebaluazio diagnostikoaren emaitzen hobekuntza % 10ean
	Ariketak ebazteko ikasleen arteko erroka( ikasle batek beste bat ebazteko ariketak edo ekintzak asmatuko ditu.).	Matematikaren emandako kontzeptuen aplikazioa garatzea.  Matematikaren hizkuntza propioa era egokian erabiltzea ariketak asmatzeko orduan.	Matematika, tekno eta natur zientziak irakasleak	Ebaluaketa bakoitzean behin.	Egindako eta ebatzitako ariketak eredu moduan.	Irakaslearen koadernoak  Programazioa	Ebaluazio diagnostikoaren emaitzen hobekuntza % 10ean
	Ikasleek ariketen azalpena ahoz, eta ariketen azalpena idatziz emango ditu ebaluaketa bakoitzean. Eguneroko hizkuntza eta hizkuntza matematikoa erlazionatzeko.	Hiztegi matematikoa bereganatzea/ hizkuntza teknikoak.  Azalpenetan oinarri matematikoki argumentazioa lantzea.  Ikasleak ariketak zein problemak azaltzerakoan argudio matematikoak	Matematika, tekno eta natur zientziak irakasleak	Egunero (ariketen argibideak eskatzen direnean, buruketen azalpenak eskatzen direnean, saio bakoitzean behin gutxienez)	-Ohiko ariketak eta bildutakoak  -Ikasleen liburua eta proposatutako ariketen bilduma.	Irakaslearen koadernoak  Programazioa	Ebaluazio diagnostikoaren emaitzen hobekuntza % 10ean



		erabiltzeko saiakerak egiten ditu.					
	Problemen ulermena landuko dugu.	Problemen ebazpenaren estrategiak lantzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- atzetik aurrera</li> <li>- froga-errore</li> <li>- problema sinplifikatu</li> </ul>	Matematika, tekno eta natur zientziak irakasleak	Hilero behin	-Ikaslearen liburua eta irakasleak proposatutakoak. -Adizkari, web orri eta liburu matematikoak	Irakaslearen koaderno  Programazioa	Ebaluazio diagnostikoaren emaitzen hobekuntza %10ean
<b>3. Gaitasun linguistikoa gazteleran hobetzea</b>	Lectura de textos que reflejan la actualidad y diversidad social.		Profesorado castellano	Semanalmente  <i>*Horas de refuerzo y recuperación</i>	-Formularios de comprensión (google drive)  -Grupos interactivos	-Cuaderno individual  -Plantillas de lectura	-Prueba diagnóstica interna, con mejora de los resultados cada curso de un 5% -Mejora en un 10% de los resultados de la prueba diagnóstica
	Lectura de libros	Selección de información. Selección de citas e interpretación de sus palabras.	Profesorado castellano	Cada trimestre 2 libros	Dos en aula	Cuaderno del alumno/a.	Mejora en un 10% de los resultados de la prueba diagnóstica

	Audiciones Orales que reflejan la actualidad y diversidad social	Mejora de la comprensión oral y ampliación del léxico.	Profesorado castellano	Semanalmente	-Formularios de comprensión -Grupos Interactivos	Plantilla de expresión oral Seguimiento de los cuadernos Plantillas de autoevaluación	Mejora en un 10% de los resultados de la prueba diagnóstica
	Aprendizaje de procedimientos de comprensión textual.	Definiciones Esquema Resúmenes Cuadros sinópticos...	Profesorado castellano	Quincenalmente	Grupos interactivos	Prueba diagnóstica Seguimiento de los cuadernos. Plantillas de autoevaluación	Mejora en un 10% de los resultados de la prueba diagnóstica
	Corrección de la expresión escrita		Profesorado castellano	Semanalmente	-Páginas de Internet -Plantillas de autocorrección de comunes	Plantilla de faltas/sistemas de control de correcciones. Seguimiento de los cuadernos. Plantillas de autoevaluación	Mejora en un 10% de los resultados de la prueba diagnóstica
	Textos discontinuos	Interpretación de gráficos, tablas, infografías (material	Profesorado castellano	Mensualmente	-Material web -Plantillas de autocorrección	Prueba diagnóstica	Mejora en un 10% de los resultados de la

		digital/analógicos...)			de comunes	Seguimiento de loscuadernos.  Plantillas de autoevaluación	prueba diagnóstica
	Leer prensa digital (titulares)	Acercarse a la realidad con el léxico adecuado y preciso	Profesorado castellano	Semanalmente	-Periódicos digitales -Actividad personal de control de léxico (rellenar huecos), buscar sinónimos	Prueba diagnóstica  Seguimiento de loscuadernos.  Plantillas de autoevaluación	Mejora en un 10% de los resultados de la prueba diagnóstica
<b>4. Maila aurreratuan ikasle kopuruak igotzea</b>	Maila bakoitzean ekintza interdisziplinari bat antolatuko dugu.	Zabalkuntza kurrikularra	Mintegiburuak	Ikasturtean behin maila bakoitzean	-Mintegi buruen koordinazio pedagogikora ko bilerak -Mintegi bilerak	Ebaluazio diagnostikoaren emaitzak 15-16 ikasturtean	Behintzat 2 gaitasunetan maila aurreratuan dauden ikasle-kopurua %5 igotzea
	Programazioaren berrikuspena egingo dugu, DBH1 eta 2ko gaitasunei dagokienez	DBH 2tik aurrera dauzkagun eskola emaitzak igotzea	DBHko irakasleak	Ikasturtero	Memoriak  Programazioak	DBH 2tik aurrera eskola emaitzen hobekuntza 14-15 eta 15-16 ikasturtean	Behintzat 3 ikasgaitan DBH 2tik aurrera eskola emaitzak %5 igotzea

<b>5. Lan-ohiturak eta gizarte trebetasunak lantzea</b>	Tutoretza-plana berrikusiko dugu.		Tutoreak eta orientatzaileak	Ikasturtero	Memoriak  Programazioak	Irakasleentzat ikasleen lan- ohiturei buruzko inkestak	Inkesta hauetan irakasleen balorazioa % 10 igotzea
<b>6. Denboraren antolaketa- errendimend ua</b>	Zaintza aktiboagoak sustatzea	Saioak –zentroaren egiturako zailtasunak gaindituta-hobeto aprobetxatzea	Klaustroa eta zuzendaritza- taldea	Ikasturtero	Zaintzen protokoloa	Urteko Plana	Memorian zaintzen ebaluazioa
	Ordutegien errebisioa	Klase orduak hobeto aprobetxatzea	Klaustroa eta Zuzendaritza- taldea	2014 ikasturtean	DAE	Memoria	Saioen errendimendua % 10 igoko da.

**Hobekuntzarako esku-hartze plan** hau ikastetxearen Klaustroak 9an onartutako urteko planean sartu da eta, 9an aurkeztu zaio OOGri/Eskola Kontseiluari.

Zuzendariaren zigilua eta sinadura:

Data: 2014-04-09

GLOSARIOA ETA TERMINOEN AZALPENA:

(\*) Aurreko ikasturteetatik datozen eta jarraitzen duten ekintzetan asteriskoa jarri behar da.

(1) Aurrera eraman behar den hobekuntza-ekintzaren proposamena enuntziatzea.

(2) Ebaluatutako gaitasunetako bat edo batzuk.

(3) F)n edo “balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriei eta praktika onei “ buruz Euskal Herriko Unibertsitateak egin duen ikerketan antzemandako praktika onetan agertzen den edozein esparru.

**(4) Ekintzaren garapenaren arabera: berehalakoa, epe erdira edo epe luzera.**

**(5) Proposatutako ekintzarekin zerikusia duten ataza edo jarduera konkretuei buruzkoa.**

- Ekintza bat ataza edo jarduera desberdinetan konkreta daiteke. Kasu honetan, ataza edo jarduera guztiek ekintza nagusiarekin izango dute zerikusia.
- Ikasteko prozesuak (kurtsoa, zikloa, maila...) edota irakastekoak, baita erabakiak hartzeko irakasleen koordinazioa ere, hobetzera zuzenduta dagoen adieraziko du ekintzak: materialen egokitzapena, lanaren antolaketa, egoera baten diagnostikoa, irakasleen prestakuntza...etab.

**(6) Helburua neurtu eta lortzeko modukoa izango da eta era zehatzean formulatuko da.**

- Funtsean, ikasleek ikasteko prozesuaren alderdi bat hobetzeko definituko da helburua baina irakaskuntzaren beste helburu batzuei ere aurre egin diezaieke, erabakiak hartzeko irakasleen hausnarketari eta koordinaziori lotutakoei esate baterako.
- Helburu bat definituko da ataza edo jarduera bakoitzerako, jarduera bereko beste lan batzuenarekin bat etor daitekeen arren.

**(7) Jardueraren arduradun edo koordinatzaileak pertsona edo kolektibo bat izan daitezke.**

- Irakasle batzuk jarduera batean arduradun gisa agertzen badira, jardueraren arduradun bakarra zehaztea komeni da. Irakasle arduradunak jardueraren garapena eta ezarpena jarraituko ditu: esleitutako denborak betetzen diren, planifikatutako baliabideak lortu edo praktikan jarri diren...

**(8) Jarduera bakoitzerako denbora konkretatu behar da.**

- Denborak jardueraren hasiera, bukaera eta maiztasuna markatuko ditu.

**(9) Ahal izanez gero, ikastetxeak dituen baliabideak planteatu behar dira.**

- Baliabideak aukeratutako helburua lortzera bideratuta egongo dira.
- Baliabide bakoitza konkretatzea eta era abstraktuan ez formulatzea inportantea da.

**(10) Lorpenaren adierazleak ekintza bakoitzaren azken helburua lortzearekin lotuta daude eta lortu nahi den azken mugarría markatzen dute; jarraipenaren adierazleak, aldiz, mugarri ertainak markatzen dituzten adierazleak dira eta ataza edo jarduera planifikatu zen moduan betetzen ari den zehazteko balio dute.**

- Lorpenaren eta jarraipenaren adierazleak ahalik eta konkretuen formulatuko dira. Adibidez: "Matematikarako gaitasunean ikasleen emaitzak %10ean hobetzea".